



Bigarren komuniuoko mutikuak 1953an

Klastruaren kanpokaldetik dotore asko agiri dan mutiko-pillatxo honek 1953an egin eben **bigarren komuniua** Oñati San Migel parrokixan. Gehixenak **1942ko kinttuak** dira. Orduan hamaika urte inguru eukiko euen, bat gorabehera. Bigarren komuniua maiatzaren akaberan edo bagillaren hasieran egiten zan **Pentekoste-pazkua** aldera-edo. Trajia eta korbatia, kurtzia lepotik behera, lazua besuan, meza-liburuxua eta erosarixua guante zuriz babestutako eskuetan: hori izaten zan orduko uniformia. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue gaztetxo oñatiarrrok:

Goixeneko illaran: Patxi Arkauz; Pedro Mari Igartua; Antonio Mugartza; Nikolas Ugarte; Iñaxio Ibarrondo; Jabier Biain; Joxe Antonio Yaniz; Ernesto Plazaola; Joxe Luis Altzelai; Juanito Guridi; Juan Karlos Galdos; Joxe Ramon Arabaolaza; eta Joxe Antonio Sologaistoa.

Erdiko illaran: Ramon Arkauz; Juanito Arkauz; Joxe Mari Markuleta; Antonio Campos; Juan Joxe Martinez de Zuazo; Juan Igartua (?); Luis Mari Errasti; Pedro Aiestui; Felix Igartua; Julian Irazabal; X. X.; Anjel Leturiaga; Luis Aristegi; Iñaxio Astigarraga; Federiko Igartzabal; eta Juanito Billar.

Beheko illaran jarritxa: Antonio Elkoroiribe; Kandido Ugarte; Joxe Elortza; Bixente Elgero; Esteban Urmeneta; Joxe Manuel Molinero; Leonardo Zabaleta abadia; Miguel Díez abadia; Bixente Kortabarria; Joxe Mari Lucas; Emilio Urtzelai; Luis Biain; Antonio Bikuña; eta Ramon Idigoras.

Mutikotan hemeretzi kaletar kontau dittugu; sei zubillagar; garibaitar bakarra; Zañartukua beste bat; Garagaltza auzoko lau; hiru edo lau Uribarrikuak; larrañatarak lau edo bost; eta olabartarra beste bat. Ia asmaitten dozuen zeintzuk diran. Abade-katekista bixak kaletarrak ziran: Don Leonardo Kale Barrikua eta Don Miguel Kale Zaharrekua. Urruxola eta Arao-tzeko mutikuak falta dira, auzo horreik euren parrokixia dakoillako; eta Arantzazu auzokuak be hango basiliikan egiten zittuain, dirudinez, komunio bixak, txikixa nahiz haundixa.

J.E

> ESKERRAK

Argazkixa Nikolas Ugartek eskuratu dosku eta argibidirek gehixenak be beriak dira. Milla esker!